

Jasper Johns-etik Jeff Koons-era

Broad Bildumen artearen lau hamarkada

GUGGENHEIM BILBAO

BILDUMA BAT BAINO ZERBAIT GEHIAGO ERAIKITZEN.	
ELI ETA EDYTHE L. BROAD-EKIN SOLASEAN	3

BILDUMA BAT BAINO ZERBAIT GEHIAGO ERAIKITZEN.

ELI ETA EDYTHE L. BROAD-EKIN SOLASEAN

STEPHANIE BARRON ETA LYNN ZELEVANSKY

Jasper Johns-etik Jeff Koons-era: Broad bildumen lau arte-hamarkada Eli eta Edythe (Edye) Broadek azken hogeita hamar urtean biltzea lortu duten bi bilduma harrigarri eta bikainetatik elikatzen da: osatu duten bilduma partikularretik eta [Broad Art Foundation](#)-en funtsetatik. Bilduma horiek lau hamarkada hartzen dituzte, eta gerraosteko arteko obra garrantzitsuenetako batzuk dauzkate, tartean Jasper Johns, Andy Warhol eta Roy Lichtenstein artisten obra klasiko batzuk. Erakusketak Jasper Johnsen pinturak erakusten ditu, [Bandera \(Flag\)](#) (1967) esaterako, eta kolorezko trazuz osatu bilbez (crosshatch) egin zuen [lehen pintura](#), 1975ekoa; Warholek egin [Marilyn](#)-en, [Jackie](#)-ren eta [Elvis](#)-en irudikapenak; eta Lichtensteinen zenbait pieza, hala nola [Nik... sentitzen dut \(I... I'm Sorry\)](#) (1965–66), [Rouengo Katedrala III. Multzoa \(Rouen Cathedral Set III\)](#) (1969) eta [artearen historian](#) oinarritutako bere lan-sortetako zenbait obra. Bilduma hauetako alderdi garrantzitsuetako beste bat 1980ko hamarkadako figura nagusiekiko, Jean-Michel Basquiat-ekiko, Jeff Koons-ekiko, Julian Schnabel-ekiko eta Cindy Sherman-ekiko kasu, erakutsi interesa da. Arte eta garai baten ikuspegi historikoa izateko, beharrezkoa da hogei urte inguru pasatzen uztea; horregatik, erakusketa hau hamarkada horretako lorpenak aztertzeke dugun lehen aukeretako bat dela esan dezakegu.

Joan zen mendean zehar, zenbait bildumagilek bilduma garrantzitsuak osatu zituzten Los Angelesen. Bilduma horietako batzuk kalitate bikaineko, ezohiko kalitateko objektu-multzo txikiak dira. Beste batzuek genero jakin bateko edo artista-multzo jakin baten obra batzuk biltzen dituzte. Baina gutxi batzuk baino ez dira bere piezen kalitateagatik, artista jakin batzuen obra kopuru handiagatik eta bolumenagatik nabarmentzen direnak: esate baterako [Walter eta Louise Arensberg-en bilduma](#), 1930eko hamarkadan zehar Los Angelesen osatua eta gaur egun Filadelfiako Arte Museoa dena, eta [Norton Simon bilduma](#), gaur egun izen bereko museoan gordailutua Pasadenan.

Eli eta Edye Broaden bildumak aparteko multzo horretakoak dira. Arte-bilduma handiak, bai publikoak bai pribatuak, funtsezkoak dira hiri handi bateko kultur bizitzan. Artista ezagunen eta berrien obrak biltzen dituztela eta, Broad bildumak paregabeak dira Los Angelesen, eskaintzen duten kalitate-, sakontasun- eta kantitate-konbinazioarengatik. Bereziki garrantzitsuak dira hiri honetako kultur bizitzarako, eta gure garaiko artea ulertzeko.

Hirurogeita hamarrek hamarkadaren hasiera zen broadtarrak [beren bilduma](#) osatzeari serio ekin ziotenean. Edyeri haurtzarotik bertatik interesatu bazitzaion ere arte modernoa eta garaikidea, Eli interes horrekin kutsatu ondoren hasi ziren bilduma bat benetan osatzen. Bere negozioen hedapenak oso lanpetuta mantentzen zuen arren, arte berriko artelanak bilatzea eta kalitate handiko bilduma bat sortzea enpresa-bizitzaren zurrunbiloari ihes egiteko modua izan zen Eli Broadentzat. Bildumagile gisa egin lana ez da soilik objektuak bildumatzera bideratzen, ideia batzuekiko konpromisoa ere badakar eta

berekin. Beti liluratuta egon da artisten pentsamolde ezohikoekin, eta arteak bere horizonte intelektual propioak zabaltzeko duen gaitasuna balioetsi du. Eli eta Edye Broadek ikuspegi nahiko ezohikoa eman diote bildumagile gisako lanari. Politikoki aktiboak eta sozialki konprometituak izaki, alderdi estetiko hutsetik haragoko planteamendu batzuekin sortu dute beren arte-bilduma. Artearen munduko prezioen gorakadari erantzun ahal izatearren, mailegu-erakunde gisa funtzionatzen duen Broad Art Foundation sortu zuten 1984an. Museo publikoek, bai estatubatuarrek bai beste herrialde batzuetakoek, artelanen merkatuan aritzeko zailtasunak izanez gero, fundazio horretara jo zezaketen, mailegu bat lortzeko. Objektu gutzituak eskuratzeko desira izan bada ere bildumagile askoren akuilua, broadtarrek jakin dute joera hori bere interes zibikoarekin konpentsatzen, bildumak sortuz alegia, horietan jasotako obrak, azkenean, instituzio publikoei dohaintzan emateko asmoarekin.

Artista estatubatuarrek nagusi badira ere, bilduma horiek obra alemaniar garaikidearen ordezkaritza zabala dute halaber. Bilduma biek, partikularrak eta fundazioarenak, bat egiten dute neurri batean, nahiz lehenak artista ezagunen obrak dituen gehienbat, eta bigarrenak artista gazteagoen obrak. Horiez gain, Eli Broadek bi bilduma korporatibo sortu ditu, Kalifornia hegoaldean gorantz datorren artean espezializatuak horiek, KB Home konpainiarena bata eta SunAmerica Inc.-ena bestea; eta biek batera 147 artistaren 400 obra baino gehiago biltzen dituzte.

Ondoren, 2001eko urtarrilean Stephanie Barron-ek eta Lynn Zelevansky-k Eli eta Edye Broadi egin bi elkarrizketa eskaintzen dizkizuegu.

G: Non hazi zinen?

Eli: New York hirian jaio, eta Detroiteko aldirietako auzo batean hazi nintzen.

G: Zein da zure familiaren historia?

Eli: Nire gurasoak etorkin lituaniarrak ziren, ideia liberalak zeuzkaten, eta Depresio Handia jasan behar izan zuten. Aita margotzaile lanetan hasi zen, eta gero merkatari izan zen, eta jostuna nuen ama. Bigarren Mundu Gerraren hasieran, Detroit demokraziaren armategia zen, eta aukera asko zegoen; hala, nire gurasoek hara aldatzea erabaki zuten 1940an, nik sei urte nituenean.

Jakin behar duzu ama aldeko senide guztiak jende kultua eta prestakuntza unibertsitarioduna ditudala. Ni seme bakarra naiz, eta lehengusu guztien artean lizentzia bat baino ez duen bakarra. Beraz, nire ama aldeko senide guztiak oso jende kultua dira, unibertsitateko titulu ugariz hornitua, ez baina arrakastaren bila dabiltzan pertsonak. Landako jende lituaniarra ziren, eta zuraren negoziotik bizi ziren. Aita, berriz, pobrea zen, guettotik zetorren eta oso ekintzailea zen; gogor egin behar izan zuen lan, bidea egingo bazuen. Eta ni bien nahasketa naiz. Ekintzailea naizela uste dut, baina beti-beti gauzekiko jakin-min handia sentitu izan dut.

G: Edye, zein da zure historia?

Edye: Detroiten jaio eta hazi nintzen, Michiganen. Gurasoak kanadarrak nituen. Biak oso familia pobre eta handietakoak ziren. Lagunak beharrean izanez gero, beti agertzen ziren laguntzeko prest. Aitari, farmazialaria zen, komunitateari eskaini zerbitzu oro interesatzen zitzaion. Nire gurasoak beti ari ziren ongintzako obretarako dohaintzak egiten. Uste dut Eliren gurasoak markatuago zeudela etorkin gisa bizi zuten esperientziarekin. Ez dut uste nireak harenak bezain konprometituak zeudenik politikoki.

G: Nondik datorkizue artearekiko interesa? Zuen gurasoak artea biltzeko zaletasunik al zuten? Arte asko ikusi al zenuten haurtzaroan?

Eli: Ezin esan nik kulturarekin lotutako ezertatik askorik ikusi nuenik. Gurasoek ez ninduten museoetara eramaten. Batzuetan kontzertuetara joaten ginen.

Edye: Nire gurasoei artea gustatzen zitzaien, baina ez dut gogoan haiek Detroiten inoiz museo batera joan izana. Uste dut eskolatik datorkidala interesa. Eskolaz kanpoko jarduera asko egiten ziren eskola batera joan nintzen. Urtero Young People Symphony-ra, antzerkira eta arte-erakusketak ikustera eramaten gintuzten. Jarduera horiek guztiak gustatzen zitzaizkidan, baina batez ere artea gustatzen zitzaidan. Zaila da azaltzen. Nire erreakzioak erraieatiko zerbait du, horrelako erreakzioa izan ohi dut margolan jakin batzuk ikustean. Detroiteko Institute of Arts-era joan ginen.

G: Museo horretatik zer gogorarazten duzu?

Edye: Diego Rivera-ren horma-irudiak; eta momia bat zeukatela. Hori oso gauza exotikoa zen Detroiten, noski. Museoak zeukan eta oso gustukoa nuen beste gauza bat etxe kolonial bat zen; bertan sar zintezkeen, eta gelak eta altzari guztiak ikus zenitzakeen. Dotorea zen.

G: Haur-gauzarik bildumatu al duzue?

Edye: Nire lehen grabatua ikasketa-bidaia batean erosi nuen, hamabi urte nituenean, hogeita bost zentaboko nire pagarekin. Picasso-ren grabatu bat ikusi nuen Michigango unibertsitateko liburutegian, eta pentsatu nuen benetan gustatuko zitzaidalako edukitzea; eta erosi egin nuen.

Eli: Zigiluak. Zortzi-bederatzi urte ingururekin hasiko nintzen. Ni goitik beherako bildumagilea nintzen. Izan ere, hamahiru urterekin zigilu-merkataria nintzen jada, eta bildumagileen zenbait aldizkaritan jartzen nituen iragarkiak.

G: Bada Jean Baudrillard-ek bildumagileei buruz idatzi artikulu zoragarri bat¹. Autore horrek dio hurrek zazpi eta hamabi urte bitartean egiten dituztela bere bildumak. Gero, bildumagilearen sena sor mantentzen da, berrogei urte bete arte. Zenbait iraun zizun zigilu-bilduma egiteko interesak?

Eli: Neskak bazirela konturatu nintzen arte (barrez). Hamahiru-hamalau bat urte nituen laga nuenean.

G: Zuretzat garrantzitsua al zen zigiluen estetika?

Eli: Ez nituen edertasunagatik bildumatzen. Uste nuen modu bikaina zela geografia eta historia ikasteko. Beraz, ez zen objektu-bilduma bat besterik gabe. Jakin egin nahi nuen Cabo Verdeko uharteak non zeuden, Trinidad non zegoen, eta antzeko gauzak.

G: Eskolan ondo pasatu al zenuen?

Eli: Nire irakasleen arabera, institutuan ikasle penagarria izan nintzen, dena jartzen nuelako zalantzan, baina unibertsitatera joatean aldatu egin nintzen. Han galdera gehiago egin zenezakeen, eta irakasleei elkarrizketa gustatzen zitzaien.

G: Artea fakultatean ikasi al zenuen?

Eli: Egiaz, 1971 edo 1972 arte ez nintzen artearen munduan sartu, berrogei urte beteta.

G: Hau da, Baudrillardek dioena egin zenuen. Non ezagutu zenuten elkar?

Edye: Detroiten. Ni institutuko azken urtean nengoen, eta Eli fakultateko bere azken urtean zegoen. Gabonetako oporretan ezkondu ginen, 1954ko abenduan, eta Detroiten bizi izan ginen Arizonara aldatu ginen arte.

G: Noiz aldatu zineten Arizonara?

Edye: 1960an. Eli bere negozioa handitzen ari zen han². Uste dut erosoago sentitzen zela toki txikiago baterantz zabalduz gero. Eta, horrela, Arizonan amaitu genuen.

G: Zenbat denbora egin zenuten han, eta zerk ekarri zintuzten Kaliforniara?

Edye: Arizonan bi urte eta erdi inguru egin genituen. Ordurako Eliren negozioa Kaliforniara ere hedatuta zegoen. Bera etengabe zebilenez Michigan, Arizona eta Kalifornia artean, eta Arizonan bertan oso denbora gutxi ematen zuenez, Kaliforniara alda gintezen iradoki zuen. Lehenago izanak ginen han, eta oso handi generitzon. Jendea arraroa zela iruditzen zitzaidan, eta hara joateko ideia ez zitzaidala gustatzen esan nion. Eta berak erantzun: “Bueno, urtebetez egin dezagun proba”. Eta urtebeterako joan ginen. Urtea amaiturik, itzultzea gustatuko litzaidakeela esan nion, eta berak, berriz: “Saia gaitezen beste urte batez”. Orduan jakin nuen ez ginela itzuliko. Orain ez dut beste inon bizi nahi. Gustatzen zait Kalifornian bizi izatea, klimagatik eta dagoen askatasunagatik, eta nahi duzunean munduko edozein tokitara bidaia dezakezu.

G: Edye, zu izan al zinen artea interesatu zitzaion aurrena?

Edye: Bai, beti interesatu izan zait artea, ezaguera dudanetik. Los Angelesera aldatu nintzenean, asko irakurtzen nuen, nire kontura ikasten nuen, egunkariko arte-atala aztertzen nuen... Erosi nuen lehenbiziko gauza Betye Saar-en obra bat izan zen. Inork hura ezagutu baino askoz lehenago izan zen hori. Galeria txiki batean zegoen hura, paperean egin obrak baitzeuzkan erakusgai. Haren bi obra erosi, eta gero bisitatzera joan nintzaion.

G: Orduan ezagutzen al zenuen beste bildumagilerik? Galeriak bisitatzeko al zenituen?

Edye: Hori hirurogeiko hamarkadaren hasieran zen. Oraindik ez nuen beste bildumagilerik ezagutzen. Gogoan dut Ferus Gallery³ bisitatzeko nuela. La Cienega galerietara ere joaten nintzen astelehen iluntzean, egun horretan oso berandu arte egoten ziren eta zabalik. Hona etorri ginenean Hollywood ingurua esploratzen nuen. Liburuak eta liburu-dendak gustatzen zitzaizkidan, eta Hollywoodek liburu-denda handiak zeuzkan. Egun batean, etxera bueltan nentorrela, Nick Wilder-en galeria⁴ aurkitu nuen.

G: Zerbait erosi al zenion Nick Wilderri, edo Ferus Galleryn?

Edye: Ez. Hobe erosi banu.

G: Elik laguntzen al zizun galerietara?

Edye: Ez, berak ez zuen denbora askorik egiten hemen. Hiru hiriren artean zebilen beti. Galeriak bisitatzea zen nire kontura egitea gustatzen zitzaidan gauzetako bat. Gustatuko zitzaidakeen nirekin etortzea, baina ez zuen horretarako astirik. Eta, dakizun bezala, ez da gauzak zerbait egiteagatik egiten dituen pertsona bat. Beti zioen: “Edyeren hobbya da”. Berak hiritik alde egiten zuen bakoitzean, nik zerbait erosten nuen. Ondo iruditu zitzaion, artisten izenak ezagutzen hasi zen arte; orduan urduri jarri zen. Nik grabatuak eta paper gainean egin obrak erosten nituen. Braque⁵ txiki bat erosi nuen, eta gero Lautrec-en kartel bat. Eli etxera itzuli eta zintzilik ikusi zuenean, egilearen izena ezaguturik honela esan zuen: “Bueno, zenbat kostatu zaizu?, non erosi duzu?, zer dakizu hartaz?”. Ordura arte nire kontua izan zen, nire hobbya alegia.

G: Bildumagile bihurtzea pentsatu al zenuen?

Edye: Ez dakit noizbait iritsi nintzen hori pentsatzera. Seguruenik Eli horretan serioago murgildu zen unetik pentsatuko nuen, orduan handitu egin zen eta horretara bideratutako aurrekontua.

Eli: Badakizu? Edye ni baino pertsona normalagoa da. Nik ez dakit ezer bere neurrian egiten. Bera ez da gauzen zale amorratu bihurtzen ni bezala.

G: Eli, nork sartu zintuen artearen munduan?

Edye: Ni neu izan nintzela esan nahi nuke gustura, baina ez zen horrela izan.

Eli: Taft Schreiber-ek⁶ sartu ninduen artearen munduan. Politikaren bitartez ezagutu nuen, hura errepublikano aktiboa eta ni, berriz, demokrata banintzen ere.

Alan Cranston garaitua izan zen 1966an⁷. Garai hartan ni ere politikan sartuta nenbilen, nahiz ez nengoen hura bezain inplikaturik. Cranston Kaufman and Broad-en sartu zen, enpresa filial bateko zuzendari gisa. 1967an erabaki zuen hautagai aurkeztu nahi zuela Senaturako, eta kanpainako zuzendari izatea eskatu zidan. Hauteskunde-kanpainak zuzentzearen inguruan ezer ez nekiela esan banion ere, esan zidan bizkorra nintzela eta asmatuko nuela zer egin. Hala, liburutegira joan, hauteskunde-kanpainari buruz aurkitu ahal izan nituen liburu guztiak hartu, eta horretan sartu nintzen. Oso urte aktiboa izan zen.

Kanpainan zehar Taft ezagutu nuen. Errepublikano egin nendin konbentzitzen saiatu zen. Ez zuen lortu, baina John Connally-rekin batera Nixon-entzako Demokrata-taldea eratu zutenean, horretako presidenteorde bihurtu nintzen⁸. Tristura handia sentitu nuen presidentetzarako hautagai demokrata George McGovern izendatu zutenean⁹. Benetan, ezin nuen ikusi garai hartan oso gogorrak ziren sobietekin negoziatzeko.

G: Nola bultzatu zintuen Schreiberrek arteko bildumagile bihurtzera?

Eli: Taft oso atsegina izan zen nirekin. Koadro bakoitzeko gauzak kontatzen zizkidan, artistenak, eta bere pentsamoldeaz eta bilduma egin zuen moduaz. Koadro handien ehiztari bikaina zen. Kontatu zidan nola lortu zituen Leigh Block-en koadroak atzeraldi batean, baliaturik Blockek uste zuela mundua azkenetan zela jada¹⁰. Benetako ehiztaria zen, esaterako Joseph Hirshhorn¹¹ bildumagilearekin alderatzen badugu, azken honek gauza pila erosten zuen eta. Taft, nolabait, ibiltzeko baimena izan zen niretzat. Zenbait pertsona aurkeztu zizkidan, atsegin handiz: Paul Rosenberg eta Klaus Perls arte-merkataria esaterako, eta museo-zuzendariak¹². Hasiera batean inpresionismoa eta postinpresionismoa interesatu zitzaizkidan, hau da, koadro politak.

Edye: Taft negozio-gizon bikaina zen, Elik harremana, konexioa, izateko moduko pertsona bat. Gai zen arteak beretzat zer esan nahi zuen azaltzeko; historiaren kronika bat zen. Artea interesatzen zitzaidala esan zion Elik Tafti, itxura, eta berari ere pixka bat interesatzen zitzaiola. Taftek esan zion New Yorkera joan behar genuela eta denbora asko eman bertan, museoetara joanez eta arte-merkatariei bisitak eginez. Erosi aurretik, denbora luzean zehar bilatu behar genuen. Arte-merkatariei idatzi zien, guri buruz, honela zioela: "Broadtarrak galeriara iristen direnean, mesedez, ni neu banintz bezala trata itzazu. Adiskide ditut". Orduan jakin ezin bazuen ere zer gertatuko zen, esan zien bildumagile garrantzitsu bihurtuko ginela.

G: Beraz Schreiber, bildumagile prototipo gisa, Hirshhorn bezalako kontrakoa zen.

Eli: Bai, nahiz seguru ez dakidan haren ikasle ona izan naizen. Nik hark zeukan koadro bakoitza aztertzen nuen, sofa gaineko Jackson Pollock bat edo zeuzkan obretako beste edozein. Pieza bakoitza ongi aztertuta zegoen, eta mundu guztiari erosten zion. Ez zen objektuak erostera mugatzen. Bazekien zertan ari zen.

G: Zein izan zen zuen lehen erosketa?

Eli: Erosi genuen lehenbiziko obra garrantzitsua Van Gogh-en marrazki bat zen, Ritter Foundation-en bildumako bat; uste dut 1972an erosi genuela, enkante batean¹³.

G: Zuen lehen erosketa izateko, nahiko obra garestia da.

Eli: Orduan 95.000 dolar kostatu zitzaigun. Nik kalitatezko zerbait erosi nahi nuen. Erosi aurretik, jende askorekin hitz egin nuen. Ez dut gogoan Taftek horren inguruan aholkurik eman zidan, baina harritua

ninduten haren bildumatzeko erak eta Charles Laughton-engandik¹⁴ ikasi zuen moduaz egin zuen deskripzioak. Taftek kalitate-kontzeptua erakutsi zidan. Pagotxaren bila ari diren bildumagile asko ezagutzen ditut, eta ni neu ere ibiltzen naiz batzuetan, baina hark konbentzitu ninduen sekula ez dela gehiegi ordaintzen artelan ona baldin bada.

Edye: Bioi gustatu zitzaigun Van Goghen marrazkia, ez zen egunero ikus zitekeen zerbait. Uste dut Taftek, gero, esan zigula gehiegi ordaindu genuela. Elik erantzun egin zion: “Kalitateari buruzko zure aholkua gogoan izango dut, ez baina prezioari buruzkorik”. Taften bilduma gurea baino lehen zen egina. Gauza zoragarriak zeuzkan, baina artearen merkatua garestitzen ari zen. Taftek gauza asko erakutsi zizkigun. Uste dut oso aintzat hartzen zuela Eli horrenbeste murgiltzea, eta ni pozez zorutzen nengoen. Nik dena erosiko nukeen, baina ez genuen hori egin. Ez geunden erosteko prest. Atzera begiratzen dudanean, hainbeste gauza zegoen, guk ez eduki, ordea, hainbeste diru. Zirrargarria eta dibertigarria izan zen. Gustatu zitzaidan Van Goghen marrazki hura edukitzea. Begiratu egiten nion, “ezin dut nirea denik sinetsi” nioela nirekiko.

G: Garai hartan, normalean joaten al zineten museoetara?

Eli: Bai. Ni 1970 inguruan hasi nintzen museoak bisitatzen. Bildumagilea izateko ez da nahiko objektuak erostea, ikasi ere egin behar da. Nengoen lekuetako, negozioak neuzkan lekuetako museo guztiak bisitatzen nituen, Frantzia, Alemanian, Kanadan¹⁵.

G: Zer irakurtzen zenuen bilduma hasi zenuenean?

Eli: Orduan arte aldizkari batzuk jasotzen nituen, eta museo eta enkanteetako katalogoak irakurtzen nituen. Harold Diamond-i¹⁶ Miró-ren 1933ko koadroa erosi aurretik, Miróri buruz zeuden liburu guztiak lortu nituen. Ezin nuen erabaki koadro haren eta Beyeler-ek zeukan eta Basileatik bidali zigun Miró baten artean¹⁷. Etxeko paretan zintzilik eduki genuen, eta biak erostea pentsatu genuen, baina azkenean Haroldena erosi genuen.

Edye: Miró hori nire gogokoenetakoa izan da beti. Bulegoan daukat zintzilik. Izugarri gustatzen zait, eta bestea ere edukitzea gustatuko zitzaidakeen. Ederra zen, baina ezin izan genituen biak erosi, aukeratu behar izan genuen.

G: Zer gehiago erosi zenuten zuen hastapenetan? Noiz hasi zen jendea zuek bildumagiletzat hartzen?

Eli: Matisse-ren 1923ko tintazko marrazki bat erosi genuen, eta Modigliani-ren kariatide bat, Sotheby's-eko enkante batean¹⁸. Matisseren marrazkiak segitzen du gure bildumako obra zaharrena izaten. Gero

UNESCOk Henry Moore-ri¹⁹ egin enkargua erosi genuen. Nolabait, jada bildumagilea nintzela uste nuen. Bost bildumagile onenen artean nengoela uste ote nuen? Ez nengoen Taften taldean, baina bilduma gauza konpultsiboa bihurtzen ari zen niretzat, adikzio bat. Mundu oso hori atsegin zitzaidan, ez soilik objektuak. Jendea, kontserbatzaileak, zuzendariak, arte-merkatariak eta artistak ezagutzea, aurrera gindoazen neurrian.

G: Los Angeleseko hirurogeita hamarreko hamarkadako bildumagile nagusiak, Fred eta Marcia Weisman²⁰ edo Joann eta Gifford Phillips²¹, ezagutzera iritsi al zineten?

Eli: Nik geroago ezagutu nituen. Orduan ez nuen mundu hori ezagutzen. Ez nekien nor zen Irving Blum²². Ez dut gogoan nola ezagutu nuen Marcia, baina Taft Schreiber ezagutu eta gero izan zen.

G: Nola hasi zenuten arte garaikideko zuen bilduma?

Eli: Egia esateko, nire kasua aldaketa mailakatua izan zen. Hasi ginenean, ez zitzaidan batere gustatzen arte garaikidea, harik eta 1971n Metropolitan-en Henry Geldzahler-en erakusketa ikusi nuen arte²³. Ordura arte ez zitzaizkidan interesatzen Taftek esaten zuen moduan “pintura erabat lehor ez zegoen” koadroak. Erosi genuen gerraosteko lehen koadroa Rothko-ren lehen obretako bat izango zen agian²⁴. Morris Louis bat ere eduki genuen²⁵. Obretako batzuk salduak ditugu, esaterako Frankenthaler-en koadro bat, haren lehen garaikoa, Beldar horia (*Yellow Caterpillar*) titulukoa²⁶.

Edye: Niri obra garaikideak eta XX. mendearen hasierakoak gustatzen zitzaizkidan. Hori interesatzen zitzaidan.

G: Uneren batean Van Goghen marrazkia saltzea eta Rauschenberg-en pintura gorria erostea erabakiko zenuten, ezta?

Eli: Gertatua kontatuko dizut. Motherwell gorri bat geneukan; ez ninduen askorik konbentzitzen, eta enkante batera eraman genuen²⁷. Christie’s-en eserita nengoen. Eskuinean David Whitney eta Philip Johnson neuzkan. Haiek Rauschenbergen pintura gorria zuten kontsignatua, eta Motherwellena guk. Txantxetan ari ginen kontu horren gainean, koadro gorrien gaua zela esanez. Nik egin nuen Rauschenbergerako eskaintza onena. Bitxia da “eskaintza onenaren” kontu hori, esan nahi baitu kasuan kasuko objektuarengatik munduan inork ordainduko lukeena baino gehiago ordaintzeko bezain ergela zarela. Baina erosi egin genuen. Nahiko diru ez geneukanez, Van Gogha saldu behar izan genuen; nik egin nahi nuen zerbait zen hori zeren eta, marrazkia izugarri gustatzen bazitzaidan ere, tiradera batean gorde behar genuen sei hilabetez, kontserbazio-kontuak zirela eta.

Edye: Gustatuko zitzaidakeen gurekin mantentzea, baina, Elik esan bezala, marrazkia izanik argitasunetik babestu behar zen eta ezin genuen denbora guztian ikusi. Gure hastapenak ditut gogoan, dena edukitzerik ez eta aukeratu behar baduzu, obra aukeraketa zorrotzagoa egiten duzu. Gauza pila bat eros badezakezu, ez da gauza bera. Gustatzen zait Taftek bere obrak aukeratzeko zuen modua. Orena baino ez zuen nahi, gauzak aztertu eta bazekien zer zen benetan ona.

G: Rauschenbergena koadro zaila da. Zerk erakarri zintuzten pintura horretan?

Eli: Pop artearen hasiera zela pentsatu nuen. Orain ez dakit pop den ala ez, baina ni arte garaikidearen ikaslea nintzen eta, nolabait, erakarri egiten ninduen Rauschenbergen obrak, halako atzerapen batez bada ere agian.

G: Erosketa hori bilduma serioago baten hasiera izan zitekeela pentsatu zenuten? Hurrengo erosketetarako gorago jarri al zuen maila?

Eli: Ez dakit seguru orduan horren kontzientzia genuen, baina baietz esango nuke, maila gorago jarri zuela.

G: Bildumagile askok eduki dute bilduma osatzen lagundu dien artista, arte-merkatari edo artearen historialari bat. Albert Elsen izan zen [andersondarren bilduman](#)²⁸, Joseph Beuys [Froehlich Collection-en](#)²⁹, eta Sol LeWitt [Dorothy eta Herbert Vogel-en](#) kasuan³⁰. Zuek izan al zenuten eginkizun hori betetzen zuenik?

Eli: Ez, egia esateko ez. Nik neuk hartzen nituen erabakiak. Shelley-k obrak bilatzen zituen³¹ eta kontuan hartu behar nituen alderdi guztiei buruzko informazioa ematen zidan, baina neuk hartzen nituen erabakiak. Leo Castelli-ri, esaterako, entzun egiten nion, baina sekula ez nion “zeuk erabaki” esaten³². Larry Gagosian-en bezeroa izan naiz Los Angelesen kartelak saltzen hasi zenetik³³. Gaur egun Larry niretzat adiskidea bada ere, garai hartan batzuetan oso zintzo ematen zizkidan iritziak, eta beste batzuetan salmenta bat egin nahi zuen saltzailearen papera egiten zuen. Jakin ezazu gure bilduma osatzen duen artistetako bakoitzaren obrarekin lotutako liburu guztiak aztertu ditudala, obra horiek erakusketetan ikusi ditudala, etab. Nire neure erabakiak hartzea gustatzen zait. Ez dut bikainak direnik esango, baina nire erabakiak dira.

G: Oker ez banago, zuen bildumaren zati nagusia laurogeiko hamarkadakoa da.

Eli: Laurogeiko hamarkadan zehar hirurogeita hamarrekoan baino serioago hartu genuen.

G: Eta laurogeiko hamarkadan sortutako artista askoren obrak erosten segitzen duzue.

Eli: Bai, artista horien obrak erosten segitzen dugu. Adibidez, Eric Fischl-en obra erosten segitu dugu fundazioaren hasieratik, eta baita David Salle, Cindy Sherman, Peter Halley eta beste artista askorena ere.

G: Bilduma egitean, erudizioaren ikuspegitik jokatu al zenuten oro har?

Eli: Bueno, ez genuen orotako obra motaz osatu bildumarik egin nahi. Nik teoria bat dut: munduko bilduma handiak egiten dira, osagai dituzten obrak garaikide dituztenean. Adibidez, ezin dugu iraganera atzera egin eta gaur bilduma inpresionista edo postimpresionista handi bat sortu. Gogoan dut nola hasi ginen Cindy Shermanekin Metro Pictures-eko sotoan, Mercer Street-en³⁴, 1980 edo 1981ean. Gero arrastoa segitu genion, eta orain haren ehun bat obra dauzkagu.

G: Sherman izan al zen obra kantitate handia erosi zenioten lehen artista?

Eli: Bai, hurbiletik segitu genuen haren ibilbidea. Johnsen lanetatik ahal izan genuena erosi genuen, ez baitzen kontu samurra, bildumagileak ilaran jartzen ziren eta hura eskuratzeko.

G: Johnsen obra erosi zenuten Rauschenbergen lan hura erosi eta gutxira?

Eli: Ez. Johnsen obra atzerapen pixka batekin hasi ginen erosten. 1978an James Corcoran-i³⁵ erosi nion “crosshatch” edo kolore-trazuzko bilbeak zeuzkan pintura.

G: Eta Warholen kasuan?

Eli: Warholekin berandu ibili ginen. Haren obra MoMAko atzerabegirakoa ikusi ondoren hasi ginen balioesten³⁶. Atzerabegirakoak oso hezitzaileak iruditzen zaizkit. Dena batera ikusi nuenean ulertu nuen haren obra.

Edye: Eliri niri baino gehiago gustatzen zaio Warhol. Estimuan dut haren obra, gauza batzuk beste batzuk baino gehiago gustatzen zaizkidan arren.

G: Artistak ezagutzea bildumagilearen lanaren zati garrantzitsua al da?

Eli: Kasu askotan alderdirik garrantzitsuena izan da. Hau da, Roy eta Dorothy Lichtensteinekin egotea gustatzen zitzaidan, eta Dorothy ikustea gustatzen zait oraindik ere. Obrak, niretzat, gustu landu bat ziren. Erosi genuen Roy Lichtensteinen lehen obra Sagar berde eta horia (*Green and Yellow Apple*) izan zen, Castelli galerian. Gogoan dut haren estudioa bisitatu nuela 1986an, Pintura akastuna (*Imperfect Painting*) eta Pintura akasgabea (*Perfect Painting*) egiten ari zenean. Elkar ezagutzera iritsi ginen, Southamptonen ikusten nuen. Gure lehen Lichtensteina erosi ondoren, haren obra erosten segitu genuen, egiten zuen erakusketa bakoitzean. Geroago Blang! eta beste pintura batzuk erosteko itzuli ginen; enkanteetan erosten genituen gehienak.

G: Eli, sarritan aipatu izan duzu erakarri egiten zaituela artistaren pentsamoldeak.

Eli: Artistek eta goi mailako prestakuntza duten akademikoek negozio-gizonenaz bestelako mundu ikuskera dute. Gizarte-aldaketen beste ikuspegi bat dute. Nolabait politikan bezala gertatzen da: mugimendu alternatiboak sortzen direnean, horiek alderdi politiko nagusiak baino askoz aurreratuago egon ohi dira. Historia politiko estatubatuarra aztertzen badugu, ikusiko dugu mugimendu alternatibo bat agertu eta, hamarkada bat inguru igarota, alderdi nagusiek haren ideietako batzuk bereganatzen dituztela. Nolabait, artistek abantaila dute gurekiko, gizartean eta munduan gertatzen dena ikusteko duten moduagatik. Niri entzutea gustatzen zait. Interesgarria da entzutea, nahiz beti ez egon haiekin ados.

G: Zuen gustua aldatu egingo zen, noski, urteetan zehar. Ba al da orain interesatzen zaizuen eta lehenago ulertzen zaila zitzazuen artistarik?

Eli: Bai, noski. Warhol ulertzen zaila zen. Lichtenstein ulertzen zaila zen. Denak zailak ziren. Egin duten obra aurkitu, horren gaineko informazioa jaso, dituzten obra gehiago ikusi behar dituzu. Duela hamar edo hamabost urte arte ez ginen europar pintura garaikidean sartu. Oraindik gogoan dut Marian Goodman-engana joan nintzela artista europarrei buruzko informazioa eskatzeko³⁷; Barbara Gladstone-k³⁸ ere zerrenda bat eman zigun. Niri Kiefer gustatzen zitzaidan, eta geroago Balkenhol. Baselitz-en pintura zatikatuetako bat erosiz hasi ginen. Hobe izango zen Richter-en obra lehenago erosi bagenu.

G: Nola lortu zuten zu Museum of Contemporary Art (MOCA) sortzeko lanean murgiltzea?

Eli: Gogora ekar ditzagun kontuak, ni enpresaria naiz. Gauzak sortzea gustatzen zait. Orduan Estatu Batuetan zazpi-zortzi bat hiri baino ez ziren arte garaikidearen museo espezifikoak zutenak, eta Los Angeles ez zen horietako bat. Asko hitz egiten zen horrelako bat sortzeaz. Hiriak eraikuntza-lanen promotoreei eskatu zien bere gastuaren %1,5 artelana bideratzea. Orduan ideia bat izan nuen: “Zergatik ez dugu diru hori guztia biltzen eta horrekin instituzio bat sortzen, bakoitzak hiri osoko halletan banatutako eskultura edo pintura indibidualetan gasta dezan utzi beharrean?”. Marcia Weismanek lagundu zuen proiektuaren lehen fasean. Alkateak, Tom Bradley zen, agindu zuen eraikuntza-lanen promotoreengandik lortuko zituela eraikinerako funtsak, baina museoak ez zuen hiriaren behar beste laguntza finantzaziorik bildu; gauzak horrela, 10 milioi dolarreko laguntza-funts bat bildu behar izan genuen. Guztira 13 milioi dolar bildu genituen, jendeari aukera emanez 10.000 dolarreko prezioan bazkide fundatzaile bihurtzeko; kopuru hori osatzeko, bost urtean zehar urteko 2.000 dolar ordainduko zituzten. Zeharo harritu ninduen hori egin nahi zuen jende kopuru handiak. Garai hartan, Music Center-era eta LACMAra joan ezin zen jende asko zegoen, sozietate pribatuak ziren eta horiek; MOCA eraikitzerik nahi ez zuen jendea ere bazen. Baina baziren, halaber, beste batzuk, Dick Sherwood³⁹ esaterako, uste zutenak Los Angeles gai zela haizerik gabe ere oihalak zabaltzeko, edo Robert Anderson⁴⁰, milioi bat dolarreko lehen dohaintza egin ziguna bera.

G: Zeu izan zinen MOCAren patronatuaren lehen presidentea.

Eli: Bai, patronatuaren presidentea izan nintzen, eta Pontus Hulten kontratatu nuen, gure lehen zuzendaria izateko⁴¹, eta Richard Koshalek, berriz, kontserbazio zuzendari izateko⁴².

G: Panza bildumaren erosketan izan al zenuen zerikusirik?

Eli: Hori historia interesgarria da. Panza kondeak arazo bat zuen⁴³. Orduan Italian zen gobernu komunistak erabaki zuen herrialdetik kanpo ondasunik zuten herritarrek, Italiara ekarri nahi izanez gero haiek, tasa izugarri altuak ordaindu behar zituztela; sekula ez dut hori ulertuko. Zergatik zergak ordaindu ondarea etxera ekartzearren? Edonola ere, Panzak nahi zuen bere bilduma batuta mantentzea, eta ez zuen saldu nahi, Christie's eta Sotheby's-ek 10 eta 12 milioi dolar bitarteko balorazioa egin bazioten ere. MOCAk ez zuen dirurik, baina Panzak eta biok tratua egin genuen: guk 11 milioi dolar ordainduko genizkion bost edo sei urtetan zehar. Esan nion: “Zuretzat errentagarriagoa izango da dolarrak kobratzeko itxarotea, guztirako kopurua liratara pasatzea baino”. Edonola ere, patronatua konbentzitzea lortu nuen, bilduma erosteko funtsak Fundazioaren zuzkiduratik har zitzaizkion maila. Zera nioen baina nirekiko: “Patronatua ezin badut konbentzitu transakzio hori egin dezan, koadro guztiak erosteko modua bilatuko dut. Pentsatuko dut nola egin”, aukera bikaina zela uste bainuen. Gaur egun, MOCAk orduko hartan lortu zuen laurogei koadroetako batek bilduma osoa ordaindu ahal izango luke.

G: Duela gutxi ikusi dut bilduma MOCA-n, eta harritu egin nau, batez ere minimalista zela uste nuelako eta, egiaz, ez delako.

Eli: Ez, ez da. Rauschenbergen munduko obra onenak dauzka, Kline oso on batzuk ere badauzka, eta Rothko bikain batzuk halaber.

G: Nola eratu zen Broad Art Foundation?

Eli: Nik izan nuen fundazioa sortzeko ideia 1979 inguruan⁴⁴.

Edye: Hasiera batean, Elik egin nahi zuen, baina ni ez nintzen aldeko, uste nuelako obrak fundazioaren jabetzakoak izanez gero ezingo nituela etxean eduki. Hala ere, denborarekin ideia gustatzen hasi zitzaidan. Fundazioarengatik izan ez balitz erosterik izango ez genuen zenbait obra erosi ditugu. Eta artista gazte batzuei ere lagundu ahal izan diegu. Fundazioak gizartearekin partekatzen ditu bere obrak, museo eta unibertsitatei mailegatzen dizkienean. Noiz arte segi dezake batek erosten? Erosten segitzeko aukera ematen digu fundazioak, eta nik ez dut ezer edukitzeko beharrik sentitzen. Etxean daukadanarekin disfrutatzen dut.

Fundazioa ere satisfazioa da, eta ikasten eta bilatzen ari ginenean gurekiko erakutsi zuen eskuzabaltasunagatik jendeari ordaina emateko modua Ez nintzen konturatzen badirela artea ikusterik ez dagoen lekuak. Guk leku horietara bidal ditzakegu gure obrak, eta horrela jende askok ikus ditzake. Behin, Los Angeleseko Mark Lere artistak kontatu zigun ezen bere haurtzaroan zehar, Coloradon, museo bat bisitatu zuela eskolarekin. Museo batean inoiz egon gabea zen ordura arte, eta irakasleari galdetu zion: “Zer da hau? Zer izen du hau egiten duen jendeak?”. Eta hark erantzun: “Hau artea da, eta artea egiten dutenak artistak dira”, eta orduak haurrak erantzun: “Horixe izango naiz ni, handia naizenean”. Hori kontatu zigunean, “horixe da gure fundazioak eskaintzen lagundu dezakeen esperientzia-mota”, pentsatu nuen.

G: Lereren esperientziak zuen artearekiko interesa sortu zen modua gogorarazten digu, hau da, eskolarekin egin txangoak.

Edye: Bai, eta baliteke gainera fundazioak beste pertsona batzuen interesa pizteko ere balio izatea. Auskalo! Artea erostea adikzioa izatera heltzen da, ez duzu gelditu nahi, nahiz, egia esan, zer egin behar duzu 700 edo 800 obrarekin?, zenbat aldiz aldatuko duzu paretetan zintzilik daukazuna? Horri museo esaten zaio.

G: Nola erabakitzen duzu fundazioaren parte izango diren obrak eta zuen bilduma partikularrean sartuko direnak? Izan ere, epe berak hartzen dituzte biek, eta batzuk artista berenak dira.

Eli: Erabakia hartzeko, kontuan izaten dugu etxean zintzilikatzeko aukerarik eta, beraz, harekin bizi izaterik izango dugun, zeren eta gure bilduma partikularrean ez baitugu eduki nahi denbora guztian biltegian edo maileguan egongo den gauzarik. Kasu horietan, nahiago dugu fundazioaren jabetza izatea. Ez zait batere gustatzen obrak biltegian egotea, nahiago dut etxean zintzilikatu, maileguan utzi edo erakustea.

G: Nola erabakitzen duzu bilduman artista berriak sartzea?

Eli: Azken urteotan gure bilduma partikularrean ez da, egiaz, artista berri askorik sartu eta, gainera, fundazioa ez da gure lehen urteetan bezain arduratsua izan. Garai hartan, jarduera East Villagen biltzen zen nagusiki, eta oraindik ere gogoan dut zenbat erosten genuen. Ez gara orduan bezain kartsuak.

G: Lichtensteinez gain, beste zein artista bisitatu zenituzten bere estudioetan?

Eli: Asko. Bereziki gogoratzen dut 66 kalean Jasper Johnsen estudiora egin nuen bisita bat. Neurri handiko pintura batean ari zen lanean, eta lehen begiratu kolpean harrapatu ninduen erabat. Orduan, sekula egin gabeko zerbait egin nuen: estudiotik alde egin nuen, kalera irten, mugikorrarekin Leo Castelliri hots egin, eta “koadro hori eduki behar dut” esan nion. Leok erantzun bazidan ere Jasperrek ez zuela saldu nahi izango, lagunduko zidala agindu zidan. Nik benetan nahi nuen koadroa, eta denbora bat igarota Jasperrek onartu zuen guri saltzea.

G: Bob Therrien izan zen zuen lehen erosketetako bat.

Eli: Uste dut Shelley zela haren obra ezagutzen zuena, eta ikustera eraman gintuen. Therrienek Picon zeukan estudioa. Edye eta biok joan ginen ikustera, eta oso obra interesgarria iruditu zitzaigun.

Edye: Bulegorako obrak ari ginen bilatzen, eta aurrekontuak eskatzen zuenez obrak mila dolarretik gorakoak ez izatea, Shelleyk artista gazteago batzuk aurkitu zituen. Eta horrela joan ginen Therrien ikustera.

G: Artisten estudioetara joaten segitzen al duzue?

Edye: Bai, baina ez da beti dibertigarria izaten. Artista batzuei ez zaie gustatzen bisita ditzaten, mundu guztia sartu nahi zaie etxean, egiten ari diren obra ikusteko. Niri ere ez zait hori gustatzen. Arte garaikidea modako jarduera bihurtu zen. Jendea erosten eta saltzen hasi zen, inbertsio bat balitz bezala. Arte-merkatari asko dinamika horretan sartu ziren, eta nik ez dut uste horrek artistari laguntzen dionik. Itxarote-zerrenda batean izena jarri behar zenuen, artelan berriak erosi ahal izateko.

G: Konpromiso bat izan duzue Richard Serra-rekin. Zerk bultzatu zintuzten etxean daukazen eskultura itzela erostera?

Eli: Errespetu handia diot Serraren obrari. Nire iritziz, bizirik den eskultore garrantzitsuenak da, inolako zalantzarik gabe. Serraren obretatik erosi genuen lehena Karta-gaztelu alderantzikatua (*Inverted House of Cards*) izan zen; LACMAri eman diogu dohaintzan. Duela urte asko erosi genuen, eta denbora luzea egin zuen biltegian, ez genekien eta harekin zer egin gure etxe zaharrean. Ez genekien ez non ez nola instalatu —objektu horiek handiak eta astunak dira, eta eroriz gero min har dezake norbaitek—, baina jarri genuen azkenean. Etxe hau eraikitzen ari ginenean, eskultura garrantzitsuren bat eduki behar genuela pentsatu nuen, eta, horrenbestez, Richard Serrari enkargua eman nion guretzako obra bat egiteko. Zoragarri iruditu zitzaidan pieza bat ekarri zigun, baina 12 metro baino gehiago hartzen zituen garai. Zenbat eta gehiago pentsatu, arazo gehiago ikusten nizkion. Lehenik, zer zen hura hirigintzaren ikuspegitik? Bandera baten masta? Egitura bat? Nik ez nuen horrela esku hartu nahi hiriko ingurune urbanoan. Egunaren amaieran, hasierako euforia joana jada, esan nion: “Zoragarria da, baina zona honetan nahiko ikuskizun dugu dagoeneko Gehry-ren etxearekin”. Desilusia hartu zuen. Urteak igaro eta gero ere, artean zerbaiten bila ari ginen. Nik obra bat ikusia nuen Basileako Kunsthalleren kanpoaldean, eta Richardek enkargua onartu zuen. Ez zidan baina esan zein “erraza” gertatuko zen prozesu osoa. Instalazio horri buruz dugun filma ikusi beharko zenuke, nahiz seguruenik izango duzun ideia bat. Amaituta zegoen jada, baina titulua falta zuen artean. Honaino ekartzeko kostuaz ari ginen hizketan, txantxak eginez gaiaren inguruan, eta esan nion: “arazorik ez”. Ongi iritzi zion izen horri, eta Arazorik ez (*No problem*) deitu zion.

G: Normalean ez duzue obrarik enkargatzen.

Eli: Bizitza laburregia da. Ez da soilik instalazioa; ez dakizu artistak zer lortuko duen. Egin dugun beste enkargu moduko bakarra Ellsworth Kelly-ren obra bat izan zen, gure beste etxerako⁴⁵. Hura erraza izan zen.

G: Koonsen obra sorta zabala daukazue.

Eli: Gaur egun estimu handian dut Jeff Koonsen obra, ulertzea kostatu bazitzaidan ere. Gehienetan bezala, ez nintzen hasieratik han izan. Artista baten obrarekin jada konbentzituia nagoenean, haren

egungo obra erosten dut eta atzera egin eta lehenagoko obra erosten saiatzen naiz. Egiaz Koonsen lehen etapa galdu genuen, merkatua gorantz zihoanean. Geroago *Three-Ball 50/50 Tank* (1985) saskibaloiko baloiak erosi genituen. Jeffek *Untxia* (*Rabbit*) eta *Michael Jackson* saldu zizkigun, bere bilduma partikularrean zeuzkan, eta beste bost obra gehiago erosi genituen arte-merkatari batzuen bitartez. Ez dut artista baten obra bakar bat eduki nahi. Norbait artista jotzen badut, uste dut garrantzitsua dela haren obra-multzo bat edukitzea erakusgai.

G: Zuen bilduma funtsean figuratiboa dela esan genezake. Horrela definituko al zenukete zuek?

Eli: Bai, hori egia da. Figuratiboa dela uste dut, eta obretako batzuek, fundazioaren bildumakoek batez ere, eduki soziala dutela.

G: Zuen ideia politiko eta sozialengatik al da?

Eli: Bai.

Edye: Uste dut fundazioaren bildumako obra soziala eta politikoa komunitatearekiko eta munduarekiko dugun interesaren isla izan daitekeela, gauzak hobetzeko gure desiraren isla eta norbaitek konponduko duen arazo bat azpimarratzeko modua. Seguruenik, hori guztia nire familiak duela asko izan zituen kezketatik datorkit.

G: Nolako bilakaera izan du zuen bildumak?

Eli: Uste dut nahiko gauza eta nahiko entretenigarri badaukazunean zure bizitzan, ez zaizula jada gauza berriak aurkitzea interesatzen. Gauzak aurkituz disfrutatzen duzun etapa bat igarotzen duzu, baina denbora bat pasata, nahiko lan baldin baduzu, interes pixka bat galtzen duzu. Fundazioak artista berri batzuekin interesatu beharko luke, eta badugu, bai, interes hori, ez ordea duela hamar urteko neurri berean.

G: Duela gutxi *Sharon Lockhart*-en obra batzuk erosi dituzue fundazioaren bildumarako. Artista gazte guztien artean, zergatik aukeratu duzue Lockhart?

Eli: Ez dakit horri erantzun ahal izango dizudan. Esango dizudan gauza bakarra da beste obra batzuk ikusi ondoren harena izan nuela gustukoen. Uste dut oraingoan gure kontserbatzaile Joanne Heyler-ek konbentzi nintzan utzi nuela.

G: Artista askok lan egin badute ere denboran oinarritutako bitartekoekin, [Shirin Neshat](#) artistaren *Estasia* (*Rapture*) obra, berriki erosi duzuen, nahiko ezohikoa da.

Eli: Horixe bera. Bideoa zail egiten zait. Uler iezadazu, pintura interesatzen zait eta, neurri txikiago batean, marrazkia eta eskultura, baina praktikoa naiz. Zer egin behar dugu bideoarekin? Obrak mailegatzeko dituen instituzio bat gara, eta zaila da bideoa mailegatzeko. Gainera, zail da erakusten. Ez dakit horrelako gauzekin bizi nahi dudana. Horrenbestez, ez gaude bideo-arteen munduan sartuta, nahiz Joanneren iritziz sartuta egon beharko genukeen.

G: Los Angelesekin lanean ari den artista-populazio oso handia du, herrialdeko bigarrena garrantziari begiratuta. Interes berezirik ba al duzu Los Angeleseko artistekiko, edo nolabait horien obra erostera behartuta sentitzen zara?

Eli: Gure bilduma korporatiboetan⁴⁶ Los Angeleseko artisten obra erosi badugu ere lehen une beretik, artistak onak baldin badira ez zaigu horien jatorria ardura. Nik [Baldessari](#) edo [Ruscha](#) ez ditut Los Angeleseko artista gisa ikusten, kasualitatez bizi dira hemen. Nik artista estatubatuar garrantzitsutzat ikusten ditut.

G: Zer erantzukizun duzue, zuen iritziz, bildumarekiko?

Eli: Uste dugu obren zaindariak garela. Jabeak bagara ere, horiek babesteko eta partekatzeko obligazioa sentitzen dugu. Gustura nago artearekin, eta obra horiez harro nago. Apaingarri gisako objektu huts baino ez direla pentsatuko banu, zeharo bestelako zerbait sentituko nuke.

G: Obrekin bizi zarenean, aldatzen al dira?

Eli: Dударik gabe. Gauza eder eta interesgarriak dira, baina obra batzuk, denbora bat igarota, ez zaizkit jada interesatzen. Morris Louisak eta Frankenthalerrak ez zaizkigu lehen bezala interesatzen.

G: Baina Johns eta Warhol interesatzen zaizkizu oraindik ere, ezta?

Eli: Bai. Laster asko ikasi nuen artearen munduan beti modak egongo direla, eta profesionalak horietan dabiltzala hara-hona. Pazientzia izaten ikasi dut. [Jean-Michel Basquiat](#)-ek ibilbide bikaina osatu zuen, baina gero, bolada batean, ezin zitzaion haren obrari irteerarik eman eta, hala eta guztiz, geroago berriro jarri zen modan.

G: Uste dut bildumagintzaren erdia objektuak bilatzea dela, eta objektu horiek balioestea, berriz, beste erdia.

Eli: Ez dut uste hori denik konbinazioa, baina gauza biak oso garrantzitsuak dira lan honetan. Obra bat bilatzeak eskatzen duen lana gustatzen bazait ere, niretzat helburu bat iristeko modua da, ez berez helburua.

G: Bilduma egiten hasi zinetenetik asko aldatu al da artearen mundua?

Eli: Artearen mundua etengabe ari da aldatzen. Hasi ginenean sukar hori ez bazen ere, laurogeiko hamarkadaren erdialdean giroa asko berotu zen. Lzenik ez bazenuen eta estudiora beste bat iritsi aurretik ailegatzen ez bazinen, ez zenuen koadroa lortzen. Guk ere igaro genuen hori, baina gero baretu egin zen kontua.

Edye: Orain negozioa da gehiago. Garai batean ez genuen askorik erosi, arrazoi horrengatik. Niri ez zait inaugurazioetara joatea gustatzen, egiaz ezin duzulako erakusketa ikusi. Ondo dago irten nahi eta jendea ikusi nahi baduzu, baina ez da artea ikusteko modua.

G: Orain, obrak zuek zeuek bilatu beharrean, iritsi egiten zaizkizue.

Eli: Bai, neurri handi batean egia da. Arte-merkatariek badakite askotxo erosten dugula. Nahiago gauza gehiago iritsi balitzaigu, baina nik ez nuen egin nahi izan egin behar nuena. Nire hanka-sartzeetako bat izan zen prest ez egotea obra handiak eskuratzearren David Geffen-en moduan ordaintzeko. Norbaitek Johns on bat baldin badauka, berari deituko diote aurrena. Davidek oso prezio handia ordaindu zuen Johnsen *Diana igeltsu-husturekin* (*Target with Plaster Casts*) koadroa eskuratzeko, egin beharrekoa egin zuen. Dirua beharrean koadroa edukitzea nahiago zuela erabaki zuen. Jendeak badaki hura ondo ordaintzeko prest dagoela. Alabaina, ni horretarako prest ez nengoelako ospea nuen. Azken urteotan, oso prezio altuak ordaindu ditut gauza batzuk eskuratzeko. Baina denboran atzera egin ahal izango banu, gehiago gastatuko nukeen hasieratik beretik.

G: Gehiago gastatuko zenukeen?

Eli: Bai.

G: Baina enkanteetan erosteko unean izugarri diziplinatua zarelako ospea duzu kontserbatzaileen artean.

Eli: Bai. Adibidez, duela gutxiko enkante batean, New Yorken, erosi nahi nituen bi obra zeuden, Richterrena bata, lehen garaikoa, eta Warholen Liz⁴⁷. Baina muga bat dago. Pentsatua nuena baino eskaintza handiagoa egin nuen, baina ez nuen mugak gainditzeko asmorik, nahiz agian egin behar nuen. Larry Gagosianek uste du zoratuta nagoela. “Diru gehiago, nik ezagutzen dudana beste inork baino aktibo likido gehiago daukazu arren, diziplinatua zara, ekonomikoa, edo nahi duzun bezala esan” esan izan dit.

G: Nahiago zenuke Geffenek erositako pinturak zeuk erosi bazenitu; hala ere, ez duzu hark egiten duena egiten, ezta?

Eli: Ez, baina kopuru handiak ordaindu ditut gauza batzuegatik. Adibidez, Twombly bat erosi nuen, lehen ikusi batean prezio altua zuen⁴⁸, eta diru asko ordaindu nuen Johnsen Bandera (*Flag*) obra eskuratzeko, bikain baineritzon.

G: Geffenez gain, miresten al duzu beste bildumagile nazionalik edo atzerritarrik?

Eli: Ezagutzen ditudan bildumagile guztien artetik, zalantzarik gabe Norton Simon izan da Kalifornia hegoaldeak izan duen onena. Haren bildumak zabaltasuna, kalitatea eta kantitatea biltzen ditu⁴⁹. Taft Schreiberrena oso ona da, baina beharrezko zabaltasuna eta bolumena falta zaizkio. Bob eta Jane Meyerhoff-ek kalitatezko bilduma daukate. Janek oso lan ona egin du, nik neuk baino askoz hobeto egin du, artistei lotu zaie eta bildumari eskaini dio ahalegin guztia. Lan finkorik ez zuenez, bilduma izan du eginkizun, eta oso ondo egin du. Haren bilduma ikusi dut Phoenixen, Marylanden, eta harrigarria da. National Galleryn egin zuten erakusketa txundigarria izan zen⁵⁰. Ray Nash-ek eskultura-bilduma bikaina dauka, zalantzarik gabe⁵¹; uste dut munduan ez dagoela horrekin parekatzeko modukorik.

G: Zure ustez, bildumagile gisa egiten duzun lanak eta zure bilduma pertsonalari eta fundazioarenari eman ikuspegiak izan al dute beste bildumagile batzuegan eraginik?

Eli: Baliteke nik beste bildumagile batzuegan eragin izana, nahiz eragin hori, sarritan, elkarrenganakoa izan den. Saatchi-k izan al du nigan eraginik?⁵² Bai, nolabait behintzat. Saatchi ni baino askoz lehenago hasi zen artista batzuen obra erosten, esate baterako Charles Ray-ren obra asko erosi zituen. Egun batzuetan sei-zazpi obra erostera iritsi zen.

G: Badirudi zuen jarduera sozialak eta zuen bilduma akasgabeki egokitzen direla.

Eli: Lehen orain baino gehiago. Garai batean gehiago interesatzen zitzaigun beste bildumagile batzuekin egotea, baina orain ditudan interes berrieekin —hezkuntza, Los Angeleseko proiektuak— ezin diot arteari jada horrenbeste denbora eskaini.

G: Bildumagile batzuek astia bilatu dute artearen historia formalki aztertzeko. Hori egitea pentsatu al duzu noizbait?

Eli: Beharbada egingo nuke astirik izanez gero. Gure konpainiaren presidentea naiz, eta dagoeneko zuzendari nagusia ez banaiz ere, harrigarria da zenbat gauza egin behar ditudan egunero. Gauza gehiegitan sartuta nagoelako izango da. Gaur, esate baterako, ordu eta erdi egin dut COROko kide talde batekin⁵³. Gero bilera batzuk izan ditut, Washingongo Hezkuntza-Idazkari berriari harrera egitearren inaugurazio-dantzaldiaren aurretik egin behar dugun afari baten inguruan. Kalifornia Hegoaldeko Unibertsitatean sartua nago; Keck Medical Center-en Administrazio-Kontseiluan nago, eta unibertsitate-ospitalearen ondoan dauden udalaren sail batzuetan biozientzia-parke bat sortzen ahalegintzen ari gara. Gauzak egitea gustatzen zait, gauzak errealitate bihurtzea.

G: Orain denbora gehiago duzuela filantropiarako eta beste interes batzuetarako, badirudi zuen jarduera nagusia izan beharrean, zuen arduetako bat baino ez dela.

Eli: Bai. Orain nire denbora gehiena haurtzaindegitik derrigorrezko bigarren hezkuntzara arteko ikasketa-plan batuari eskaintzen diot, K-12ri. Broad Foundation-ek, arazo sozial bat nazio-mailan konpontzeko sortua izaki⁵⁴, Art Foundation-en funtsak jasotzen ditu eta funts gehiago jasotzen segituko du. Gure helburua herrialdeko eskola barruti handienetako kudeaketa, administrazioa eta lan harremanak hobetzea da. Gauza asko ari gara egiten nazio-mailan; oso pertsona bikainak ditugu fundazioan lanean. Sekula utziko ez diodan arren demokrata izateari, oso pozik nago Bush presidenteak Roderick Paige Hezkuntza-Idazkari izendatu duelako. Houstongoa da, herrialdeko zazpigarren eskola barruti garrantzitsuenekoa. Pertsona errealista da, praktikoa, eta ez du dogmatikotik edo politikaritik ezer. Uste dugu horrekin aldaketa positibo asko etorriko direla hezkuntza publikoan.

G: Ba al da modurik helburu biak lotzeko, artea K-12 ikasketa-planean txertatuz planaren beste parte bat balitz bezala?

Eli: Hori garrantzitsua da. Alabaina, K-12 ikasketa-planak hirurogeita bost hiri-barruti nagusietan dituen arazoak hain dira handiak ezen arte-hezkuntza ez baita nire hamar lehentasun nagusien artean sartzen. Tesi oso bat idatzi dut teknologiaren garapenaren eta merkatu librearen ondorioz gertatu denari buruz.

Bi langile-mota baino ez dira jada: kualifikatuak eta ez kualifikatuak. Klase ertainaren eta pobreen arteko aldeak gero eta handiagoak dira. Benetan uste dut herrialdeak duen arazo handiena K-12 ikasketa-plana sortzea dela. Konbentzitua nago garrantzitsua dela Los Angelesen erdian gunen nagusi bat sortzea.

G: Kezka horiekin guztiekin, beste perspektiba batez ikusten al duzu artea?

Eli: Artea interesatzen zait eta interesatuko zait, baina ez dut asmorik orain eskaintzen diodan astia baino gehiago eskaintzeko. Adibidez, datorren asteko ostegunean New Yorken egongo naiz, sei bat orduz, galeriak eta museoak bisitatzen, ikusi ez ditudan gauzak ikusteko. Eta hurrengo asteak Washingtonen emango ditut eta museoetako erakusketak bisitatzeko baliatuko dut aukera. Bildumak handitzen eta kalitatez hobetzen segituko dugu. Fundazioak orain arte egin duena egiten segitzea nahi dugu, eta baliteke dituen jarduerak zabaltzea ere, bilduma bietarako finantza-baliabide gehiago dauzkagu eta. Baina K-12 hezkuntza-plana erreformatzea, berregituratzea eta iraultzea lortuko bagenu, askoz garrantzitsuagoa izango litzateke gizartearentzat eta herrialdearentzat, arte-bildumak egitea baino. Gainera, izugarri gustatzen zait nire hiria, eta LACMAk aurrera egitea nahi dut.

G: Zein izango da bildumaren etorkizunerako esparru ideala?

Edye: Nik 64 urte ditut, eta Elik 67. Uneren batean erabaki beharko dugu obrekin zer egin, kezkatzen nauen zerbait da-eta. Beharbada museo bateko edo batzuetako bildumetako hutsune batzuk beteko ditugu. Eta fundazioa ona dela eta helburu bat duela uste badut ere, ez dut uste munduak beste instituziorik behar duenik. Gauza handiagoren baten parte izatea gustatuko litzaidake.

Eli: Gure asmoa da bilduma gure etxea izan den Los Angeles inguruko arte-instituzioren bati edo batzuei dohaintzan ematea.

G: Zer aholku emango zenieke bildumagile gazteei?

Eli: Dirua baino gehiago denbora asko eskaini behar zaiola. Orain ariko bagina hasten eta diru askorik izango ez bagenu, nire garaiko edo lehentxeagoko grabatuak eta marrazkiak erosiko nituzke. Hori egiteko, museoak, galeriak eta estudioak bisitatu behar dira, denbora eman horietan, ikasle bihurtu. Oso jende gutxi dago hori guztia egiteko prest. Dirua inbertitzen dute, denbora ez ordea.

G: Bildumagile gisa, zer helburu iritsi nahi dituzue eta nola gustatuko litzazueke bilduma gogoratzea?

Eli: Argi dago guretzat artea bildumatzea ez dela inbertsio bat. Guk ikasi egin nahi dugu horretatik, horrekin bizi nahi dugu, eta inspiratuta sentitu. Harro egon gaitezkeela uste dut. Bilduma onena ote? Jasper Johnsen obraren selekziorik onenetakoa akaso? Seguruenik ez, baina artista batzuen obraren artean egin aukeraketa ona da. Uste dut Twombly eta Warhol ongi ordezkatuak daudela, eta Lichtenstein ere bai. Espero dugu jendeak kalitatezko bildumatzat hartuko duen bilduma bat sortzen ari izatea. Jendeak zertan ari ginen bagenekiela pentsatzea gustatuko litzaiguke. Azken berrogei urteetako arte-bilduma handi baten jabe gisa gogora gaitzaten nahiko genuke, eta gure pasioa besteekin partekatu genuela. Badakit ez dela oso ohikoa zerbait sortzea oparitzearren. Hau legatu bat da.

[Itzultzailea: Luis M^a Larrañaga]

Oharra

1. Jean Baudrillard, "The System of Collecting", in John Elsner eta Roger Cardinal, ed., *The Cultures of Collecting* (Cambridge: Harvard University Press, 1994), 7.-24. or. [\[itxuli\]](#)
2. Eli Broad eta Donald Kaufman-ek, 1957an, Kaufman and Broad Home Corporation sortu zuten (duela gutxi KB Home izena hartu du) Detroiten. Konpainia hedatu egin zen, 1962an Arizonan eta 1963an Kalifornian sartuta. [\[itxuli\]](#)
3. Ferus Gallery (1957–66) Walter Hopps kontserbatzaileak eta Edward Kienholz artistak fundatu zuten. 1959an, Irving Blum galeriaren zuzendari bihurtu zen. Beste jardura batzuen artean, galeria horrek artista kaliforniar gazteei lagundu zien, eta Andy Warholen obraren lehen erakusketa antolatu zuen 1962an. [\[itxuli\]](#)
4. Nick Wilderrek (1938–1989) galeria bat zuzendu zuen West Hollywood-en 1965 eta 1979 bitartean. [\[itxuli\]](#)
5. Georges Braque, *Quatre Oiseaux*, data gabe, litografia. [\[itxuli\]](#)
6. Taft Scheiber (1908–1978) Music Corporation of America-ren presidenteordea izan zen. Berak eta Eli Broadek 1971n ezagutu zuten elkar. Scheiber eta emazte zuen Rita Bloch 1940ko hamarkadan hasi ziren XIX. eta XX. mendeetako arte europarraren eta estatubatuarren bere bilduma osatzen. Bilduma ez zen mugimendu edo eskola jakin batzuetara mugatzen; hori beharrean, mugimendu edo epe bakoitzeko ale onenak biltzen saiatzen zen. Schreiber LACMAren patronatuko kidea izan zen 1964tik 1974ra. [\[itxuli\]](#)
7. Alan Cranston politikari demokrata Kaliforniako estatuko ikuskatzailea izan zen bi agintalditan zehar (1959–67). 1967an Homer for a Better America-ren presidente bihurtu zen; hori Los Angeleseko eraikuntza-enpresa bat zen, Kaufman and Broad Home Corporation-en filiala. Eli Broad zuela kanpainaren zuzendari, Cranston Estatu Batuetako Senatura iritsi zen 1968an, eta lau agintalditan zehar aritu zen bertan. [\[itxuli\]](#)
8. John Connally (1917–1993) Texaseko gobernadorea izan zen hiru agintalditan zehar, 1962tik 1968ra. Itsas Armadako idazkaria izan zen John F. Kennedyren presidentziarekin, eta Altxoraren idazkaria eta presidentearen aholkulari berezia Nixon administrazioan. [\[itxuli\]](#)
9. 1972an presidentziarako hautagai demokrata George McGovernek Richard Nixon errepublikanoaren aurka galdu zuen. Hego Dakotako senatari karguan zegoenean, McGovern oso kritikoa izan zen Johnson presidentearen agintaldian Vietnamgo gerran gertatu zen egoeraren okerragotzearekin. 1974an Estatu Batuetako senatari berrautatu zuten, eta 1980an arte segitu zuen karguan. [\[itxuli\]](#)
10. Leigh B. Block (1905–1997) eta emazte zuen Mary Chicagoko bildumagileak ziren; hogeiko hamarkadan hasi ziren XIX. eta XX. mendeetako arte europarraren bere bilduma osatzen. Geroago, blocktarrek XX. mendeko arte estatubatuarra gehitu zieten bere funtsei, eta gaur egun obra horietako asko eta asko Art Institute of Chicago-ren bildumaren parte dira. [\[itxuli\]](#)

11. Joseph H. Hirshhorn (1899–1981) negozio-gizon bikaina izan zen. XX. mendeko obra europarren eta estatubatuarren bilduma garrantzitsu bat biltzea lortu zuen, artista biziekiko interesa erakutsiz bereziki. 1986an Hirshhornek Washington, D.C.ko Smithsonian Institution-i eman zion bere bilduma. 1974an atek zabaltu zituen Hirshhorn Museum and Sculpture Garden-ek, Mall-en, Washington D.C.n. [\[itxuli\]](#)
12. Paul Rosenberge (1881–1959), 1940an, Parisko bere arte-galeriaren sukurtsal bat ireki zuen Ekialdeko 79 kaleko 20. zenbakian, New Yorken. Pintura frantses garaikidean espezializatutako galeria Alexandre semeak zuzendu zuen 1980ko hamarkada arte. Klaus G. Perlek eta emazte zuen Dolly-k, 1937 eta 1995 bitartean, arte moderno europarrean espezializatutako arte-galeria bat eduki zuten Madison Avenueko 1018an, New Yorken. Frank Perls-ek, Klausen anaiak, galeria bat eduki zuten Beverly Hills-en, 1939tik 1977 arte. [\[itxuli\]](#)
13. 1972ko urrian broadtarrek Van Goghen *Cabanes à Saintes-Maries* (1888) marrazkia erosi zuten New Yorken, Parke-Bernet-en enkantean, Sothebyn. Obra frantses hori New Yorkeko Ritter Collection-ekoa izan zen lehenago, horrek ere bazeukan eta XIX. mendeko eta XX. mendearen hasierako pintura frantses sorta bat. [\[itxuli\]](#)
14. Charles Laughton (1899–1962) eta emazte zuen Elsa Lanchester aktoreak eta bildumagileak ziren Los Angelesen. XIX. eta XX. mendeetako europar artea interesatzen zitzaizen batez ere. [\[itxuli\]](#)
15. 1967an Kaufman and Broad zen Europar ari zen eraikuntza-enpresa estatubatuar nagusia, eta gaur egun Frantziako eraikuntza-enpresa garrantzitsuenetakoa da. 1971n Kaufman and Broad-ek SunAmerica Life Insurance Company erosi zuen; hau, berregituratze estrategikoaren ondoren, 1989an SunAmerica Inc. bihurtuko zen. Eli Broad finantza-zerbitzueta SunAmerica Inc. enpresaren presidente eta sortzaileetako bat da, eta 2001eko urtarrilera arte presidente eta zuzendari nagusia ere izan zen. SunAmerica-ren enpresa nagusi American International Group-en administrazio kontseiluko kidea da. [\[itxuli\]](#)
16. 1974ko urtarrilean broadtarrek Joan Miróren *Pintura 1933* (1933) obra erosi zioten Harold Diamondi; hau New Yorkeko arte-merkatari partikular bat zen, hirurogeiko hamarkadatik 1983an hil zen arte lanean aritu zena bera. Diamond XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako arte europarrean espezializatu zen, Picassoren, Matisseren, Miróren, Braqueren eta Léger-en obra tartean. [\[itxuli\]](#)
17. Ernst Beyeler arte-merkataria izan da Basilean 1945az geroztik, eta arte moderno europarraren bildumagile handia. 1971n Basileako Nazioarteko Arte FERIAREN sortzaileetako izan zen. 1982an *Beyeler Fundazioa* sortu zuen, eta 1997an haren museoa inauguratu zuten Basileako auzo bat den Riehengo Berower parkean. [\[itxuli\]](#)
18. Broadtarrek, 1973an, Matisseren *Biluzia lotan* (*Nu couché*) luma-marrazkia (1922–23) erosi zuten. 1975ean Amedeo Modiglianiren *Kariatidea* (*Cariatide*) pintura erosi zuten (ca. 1913–15). [\[itxuli\]](#)
19. Broadtarrek, 1974an, UNESCOk Henry Mooreri enkargatutako *Irudi etzana* (*Reclining Figure*, 1957) obraren modeloa, 238,8 cm luzeko brontzea, erosi zuten. 1993an saldu egin zuten pieza. [\[itxuli\]](#)
20. Los Angeleseko Frederick R. (1912–1994) eta Marcia Weisman (1918–1991) bildumagileek berrogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean hasi zuten XX. mendeko beren arte bilduma, eta Los Angeleseko arte estatubatuar garaikideko bildumarik onenetakoa biltzera iritsi ziren. Fred Weisman LACMAren patronatuko kidea izan zen 1975etik 1994 arte. [\[itxuli\]](#)
21. Joann eta Gifford Phillips arte europar eta estatubatuar moderno eta garaikidearen bildumagileak dira. Gifford Phillips LACMAren Arte Garaikideko Kontseiluaren lehen presidentea izan zen (1961–63). [\[itxuli\]](#)
22. Irving Blum Ferus Galleryren zuzendaria izan zen, hori 1958an Los Angelesen ireki zutenean. Ferus Gallery 1966an itxi zuten, eta 1974an Blumek arte estatubatuar garaikidean espezializatutako galeria bat ireki zuen New Yorken. [\[itxuli\]](#)
23. *New York Painting and Sculpture, 1940–1970*, The Metropolitan Museum of Art, New York, 1970. Erakusketak Jasper Johnsen, Ellsworth Kellyren, Roy Lichtensteinen, Morris Louisen, Robert Motherwellen, Robert Rauschenbergen, Mark Rothkoren eta Andy Warholen obrak aurkeztu zituen. [\[itxuli\]](#)

24. 1980ko maiatzean broadtarrek Rothkoren *Laranja, horia, laranja* (*Orange, Yellow, Orange*, 1949) obra erosi zioten Marlborough Galleryri, eta 1987ko azaroan Sotheby's-en saldu zuten. [\[itxuli\]](#)
25. 1980an broadtarrek Morris Louisen *Kastor eta Polux* (*Castor and Pollux*, 1962) erosi zuten Andre Emmerich-en galerian, eta 1987an saldu. [\[itxuli\]](#)
26. Broadtarrek Helen Frankenthalerren *Beldar horia* (1981) erosi zuten 1977an, eta 1990ean saldu. [\[itxuli\]](#)
27. Broadtarrek, 1976an, Robert Motherwellen *Ate siziliarra* (*The Sicilian Door*, 1972) erosi zuten, eta 1983an saldu. [\[itxuli\]](#)
28. Albert Elsen (1928–1995) arte-irakaslea izan zen Stanforderko Unibertsitatean 1968tik 1995era arte. Eskultura modernoan eta bereziki Rodin-en obran espezializatua, eragin handia izan zuen Harry W. eta Mary Margaret Andersonek San Frantziskon osatu eskultura-bildumaren eraketan. [\[itxuli\]](#)
29. Joseph Beuys artista alemaniarrek harreman estua izan zuen Stuttgarteko Josef eta Anna Froehlich-ekin, hauek bere arte modernoko eta garaikideko bilduma osatzen hasten ari zirenean. [\[itxuli\]](#)
30. Sol LeWitt artistak Dorothy eta Herbert Vogel bildumagile newyorktarrei aurkeztu zizkien geroago hauen arte kontzeptualeko eta minimalistako bildumaren muina osatuko zuten artista gazteak. 1992an vogeltarrek Washington D.C.ko National Gallery of Art-i agindu zioten beren bilduma. 1994an National Galleryk *From Minimal to Conceptual Art: Works from the Dorothy and Herbert Vogel Collection* erakusketa aurkeztu zuen. [\[itxuli\]](#)
31. Michele de Angelus 1980an hasi zen broadtarrekin lan egiten. Broad Art Foundation-en, The Eli and Edythe L. Broad Collection bilduma partikularren eta SunAmerica Inc.-en eta KB Home-ren bildumen kontserbatzailea izan zen 1995 arte. [\[itxuli\]](#)
32. Leo Castelli (1907–1999) 1957an ireki zuen New Yorkeko bere galeria. Arte-merkatari eta pop artearen sustatzaile handia izan zen. [\[itxuli\]](#)
33. Urte askoan zehar arte garaikidearen merkatari, Larry Gagosianek 1976an zabaldu zuen bere lehen grabatu-galeria Los Angelesen. 1980an dagoeneko artista newyorktarren obra ari zen erakusten, Eric Fischl, Richard Serra eta David Salle kasu. Gaur egun galeriak dauka Los Angelesen, New Yorken eta Londresen. [\[itxuli\]](#)
34. Metro Pictures galeriak, Janelle Reiring-ek eta Helene Weiner-ek zuzenduak, 1980an ireki zituen ateak Sohon, Mercer Street-eko 169an, besteak beste Cindy Shermanen eta Sherrie Levine-ren obra erakutsiz. [\[itxuli\]](#)
35. James Corcoran arte garaikidearen merkataria da, eta 1974az geroztik arte-galeria bat dauka Los Angelesen. [\[itxuli\]](#)
36. *Andy Warhol: A Retrospective* erakusketa, komisario Kynaston McShine izan zuena, New Yorkeko Museum of Modern Art-en egon zen 1989ko otsailaren 6tik maiatzaren 2ra bitartean. [\[itxuli\]](#)
37. Marian Goodmanek Mendebaldeko 57 kaleko 24an ireki zuen bere galeria 1977ko urrian. Berak aurkeztu zion ikusleria estatubatuarri artista europar garaikide askoren obra, besteak beste Anselm Kieferrena; esaterako, honen obra laurogeiko hamarkadaren hasieran erakutsi zuen lehen aldiz. [\[itxuli\]](#)
38. Barbara Gladstonek 1983an zabaldu zuen New Yorkeko bere lehen galeria, Wooster kaleko 152an. [\[itxuli\]](#)
39. Richard E. Sherwood (1928–1993) LACMAren patronatuaren presidentea izan zen 1974tik 1978ra, eta LACMAren presidentea 1978tik 1982ra. [\[itxuli\]](#)
40. Robert O. Anderson, ARCO Corporation-en Administrazio Kontseiluko presidentea, LACMAren patronatuko kide bihurtu zen 1973an. 1994an patronatuko biziarteko ohorezko kide izendatu zuten. [\[itxuli\]](#)

41. Pontus Hulten Los Angeleseko MOCaren zuzendari fundatzailea izan zen (1980–82); horren aurretik Musée nationale d'art moderne, Centre Georges Pompidou-ren lehen zuzendaria eta Stockholmeko Moderna Museet-en zuzendaria izana zen. [\[itxuli\]](#)
42. Richard Koshalek Los Angeleseko Museum of Contemporary Art-en zuzendari laguntzaile izendatu zuten 1980an. 1982tik 1999ra bitartean museoko zuzendari karguan aritu zen. MOCARA iritsi aurretik, Hudson River Museum-en zuzendari izan zen Yonkers-en, New Yorken. [\[itxuli\]](#)
43. Giuseppe Panza di Biumo kondea gerraosteko arte europarraren eta estatubatuarren bildumagile italiarra da. [\[itxuli\]](#)
44. Broad Art Foundation 1984an eratu zuten, “oso garrantzi historiko handiko arte garaikideko artelan-bilduma bat sortu eta hori, bere funtsetako maileguen bitartez, mundu osoko beste arte instituzio batzuen eskura jartzeko”. 1988an Broad Art Foundation-ek egoitza aldatu zuen, Los Angeles mendebaldean Michele De Angelus-ek zeukan etxearen ondoko solairu bateko txaletetik Frederick Fischer arkitektoak Santa Monica, Ocean Park inguruan, zaharberritutako eraikin komertzial batera. Eraikinak 2.000 m² dauzka erakusketetarako. Bertara irits daitezke, aurretik ordua hartuta, “arte-adituak, museoetako profesionalak eta pertsona kualifikatuak, edo unibertsitateei lotutako museoetako talde txikiak”. Broad Art Foundation-en liburuxka. [\[itxuli\]](#)
45. Ellsworth Kelly, *Kurba XXVIII* (*Curve XXVIII*), 1982. [\[itxuli\]](#)
46. Kaufman and Broad Collection 1981eko azaroan hasi zen. SunAmerica Inc. sortu zutenean, konpainia biek bilduma hau partekatu zuten. Gaur egun bi bilduma daude, SunAmerica Collection eta KB Home Collection; Kalifornia hegoaldean lan egiten duten artista biziak sortutako artean bildutako ikuspegia partekatzen dute. SunAmerica Collection-en artista ezagunenen artean ditugu John Altoon, Ingrid Calame, Sharon Ellis, Charles Garabedian, Tim Hawkinson, Mike Kelley, Monique Prieto, Nancy Rubins, Italo Scanga eta Robert Therrien. [\[itxuli\]](#)
47. Enkantea 2000ko azaroaren 15ean izan zen, Christie's-en Gerraosteko Enkantean, New Yorken. Obra bi horiek *Liz* (1963), Andy Warholena, eta *Biltzarra* (*Der Kongress*, 1965), Gerhard Richterrena, dira. [\[itxuli\]](#)
48. *Niniren pintura*, 1971. [\[itxuli\]](#)
49. Norton Simon (1907–1993), Los Angeleseko negozio-gizona bera, berrogeita hamarreko hamarkadan hasi zen bere arte-bilduma osatzen. Dituen funtsen artean dira XIX. mendeko pintura frantsesa, maisu klasiko handiak, eta Indiako eta Asia hego-ekialdeko artea. 1975ean Pasadena Museum of Art berrantolatu zuen, porrot egoeran baitzegoen; horrek, ondoren, *Norton Simon Museum* izenarekin zabalduko zituen atzera ateak, eta Simonen bildumaren erakuslehoi bihurtu zen. [\[itxuli\]](#)
50. Jane eta Robert Meyerhoff, Baltimoreko bi filantropo ziren, berrogeita hamarreko hamarkadan hasi ziren arte moderno europarreko eta estatubatuarreko bilduma osatzen. 1987an bilduma agindu zioten Washington D.C.ko National Gallery of Art-i; honek, 1996an, *The Robert and Jane Meyerhoff Collection: 1945–1995* erakusketa aurkeztu zuen. Gaur arte, berrogeita hamar obra baino gehiago eman dizkiote instituzio horri. [\[itxuli\]](#)
51. Raymond eta Patsy Nasher Dallasko bildumagileak dira, eta batez ere pintura garaikidea eta eskultura modernoa bildumatzen dute. 1997an San Frantziskoko Fine Arts Museum-ek *Masterworks of Modern Sculpture: The Nasher Collection* erakusketa aurkeztu zuen. Urte horretan bertan, *A Century of Sculpture: The Nasher Collection* erakusketa egin zuten New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-en. Hasiera batean 2002a zen Dallas hiriaren erdian Nasher Sculpture Garden and Center inauguratzeko aurreikusitako data. [\[itxuli\]](#)
52. Charles Saatchi, publizitatearen munduan aberastua, eta lehenbiziko emazte izan zuen Doris, arte garaikidearen bildumagile garrantzitsuak izan ziren hirurogeita hamarreko hamarkadan zehar. 1985ean *Saatchi Gallery* zabaldu zuten Londresen, bere bilduma partikularreko erakusketa egin ahal izatearren. Broadtarrek zeuzkaten *Charles Ray*ren obrak Saatchiri erosiak ziren. [\[itxuli\]](#)

53. CORO 1942an sortutako erakundea da, eta enpresa-kudeaketan prestatzeko ikastaroak ematen ditu graduondokoentzat. Pertsona aukeratuek enpresa-zuzendari eta kargu publikoentzako bederatzi hilabeteko prestakuntza-programa zorrotz batean hartzen dute parte. [\[itzuli\]](#)
54. “Broad Foundation 1999an sortu zen. Fundazioak laguntzak ematen dituen enpresa-erakunde gisa funtzionatzen du, eta proiektu berritzaileentzako diru-laguntzak ematen ditu, betiere hirietako eskola barruti handietan kudeaketa, administrazioa eta lan harremanak nabarmen hobetzera begira”. Broad Collection-en liburuxka. [\[itzuli\]](#)